

PYRENAICA

EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA | FEDERACIÓN VASCA DE MONTAÑA

DEBOZIOZKO MENDIAK

Lea eta Artibai artean | Peña Rueda | Trekking de Luchon | Zermatteko bost lakuak
La vía, no tan verde, del Duero portugués | Elgon, la montaña olvidada de Uganda
Ekaitz Maiz | Ainhize Belar | Mitología del silo de Okina | ¿Cómo se miden las montañas?
El desmán de los Pirineos | Andes 67, tres cumbres y una ikurriña



Nº 298 | 1ª DE 2025 | 5,10 €

1926tik | desde 1926

Suscríbete a / Harpidetu zaitez

PYRENAICA



Año 2025 (4 números / zenbaki)
Prezioa: 18€

Ingresa el importe en
la c/c ES24 3035-0072-00-0720030006 de Laboral Kutxa
y envía a contacto@pyrenaica.com:
Nombre, DNI, domicilio, teléfono y correo electrónico.

Laboral Kutxako ES24 3035-0072-00-0720030006 k/k
dirua sartu eta
contacto@pyrenaica.com helbidera bidali:
Izen deiturak, NAN zenbakia, helbidea, telefonoa eta posta
elektronikoa.

LEHIAKETAK · CONCURSOS

XLII CONCURSO DE ARTÍCULOS DE MONTAÑA (2025)

Participan los artículos en euskera o castellano que se publiquen en Pyrenaica durante 2025, seleccionados entre todos los recibidos. Los artículos han de aportar novedades sobre lo publicado en cualquier medio y ajustarse a la normativa de Pyrenaica (ver en www.pyrenaica.com). Serán premiados el primer, segundo y tercer clasificados.

XLII MENDI ARTIKULUEN LEHIAKETA (2025)

2025ean zehar Pyrenaican euskaraz nahiz gaztelaniaz idatzi eta argitaratutako artikulek parte hartuko dute. Artikuluak originalak izatea baloratuko da eta Pyrenaicaren araukin bat etorriko dira (ikus www.pyrenaica.com). Lehenengo, bigarren eta hirugarren sailkatuak sarituak izango dira.

XLIII CONCURSO DE FOTOGRAFÍA DE MONTAÑA (2025)

Participan las fotografías que se publiquen en Pyrenaica durante 2025, excepto las que forman parte de artículos. Se enviarán como máximo cuatro fotografías digitales no publicadas en otro medio. Tamaño: 18 cm en su lado más largo. Resolución: a 300 ppp/dpi, espacio de color RGB. Formato de archivo: jpg. No se interpolarán los archivos ni se añadirán máscaras de enfoque. Serán premiados el primer y segundo clasificados.

XLIII MENDI ARGAZKIEN LEHIAKETA (2025)

2025ean zehar Pyrenaican argitaratuko diren argazkiek parte hartuko dute, artikuluetan agertzen direnak izan ezik. Gehienez lau argazki bidaliko dira beste komunikabide batean argitaratu gabeak. Tamaina: 18 cm bere alderik luzeenean. Erresoluzioa: 300 dpi-tan, RGB kolore-espazioa. Artxibo-formatua: jpg. Ez dago artxibategiak tartekatzerik ezta enfoko maskarak gehitzerik ere. Lehenengo eta bigarren sailkatuak sarituak izango dira.

ENVÍO DE ARTÍCULOS Y FOTOGRAFÍAS

INCLUIR: Nombre y Apellidos del autor/a, dirección, email y tfno de contacto.
ENVIAR A: contacto@pyrenaica.com (Asunto: Concurso Pyrenaica) ó a: Pyrenaica. Julián Gaiarre, 50-trasera. 48004 Bilbao.
Los trabajos recibidos quedarán en propiedad de Pyrenaica y no podrán publicarse en otro medio hasta su devolución. Los premios se entregarán en la Gala del Montañismo Vasco de 2026. La participación en el concurso implica la aceptación de estas bases; las dudas serán resueltas por el Jurado.

ARTIKULU ETA ARGAZKIEN BIDALKETA

Izen-deiturak, helbidea, e-posta eta harremanetarako telefono zenbakia.
BIDALI: contacto@pyrenaica.com (Gaia: Pyrenaica Lehiaketa) edo: Pyrenaica. Julian Gaiarre, 50 trasera. 48004 Bilbo.
Aurkeztutako lan guztiak Pyrenaica aldizkariaren jabetzapean geratuko dira, beste edozein hedabidetan argitaratzerik egongo ez dela, harik eta itzuliak izan arte.
Epaimahaiaren erabakia eta sari banaketa 2026ko Euskal Mendizaletasunaren Galan egingo da. Lehiaketan parte hartzeak berak, honako oinarri hauek onartzen direla adierazten du. Oinarrien aplikazioan sor litezkeen zalantzak Epaimahaiak ebatziko ditu.


PYRENAICA^k

Te oferta la
Eskaintzen dizu

Historia testimonial del Montañismo Vasco

45€
(tres tomos/hiru liburuki)

Tres tomos escritos por **ANTXON ITURRIZA**ak idatzitako hiru liburuki



TOMO I:
El descubrimiento de
la montaña (1848 - 1936)
Páginas 240 orrialde

TOMO II:
De los Pirineos
al Himalaya (1939 - 1980)
Páginas 284 orrialde

TOMO III:
Tiempos modernos .
El Alpinismo del siglo XXI
Páginas 240 orrialde

Ingresa el importe en la c/c 3035-0072-00-0720030006 de Laboral Kutxa
y envía a contacto@pyrenaica.com:
Nombre, DNI, domicilio, teléfono y correo electrónico.

Laboral Kutxako 3035-0072-00-0720030006 k/k dirua sartu
eta contacto@pyrenaica.com helbidera bidali:
Izen deiturak, NAN zenbakia, helbidea, telefona eta posta elektronikoa.

Más información / informazio gehiago
www.pyrenaica.com

Montañas cercanas y lejanas



Gertuko eta urrutiko mendiak



5 EDITORIAL · EDITORIALA

6 DEBOZIOZKO MENDIAK
FEDEAREN ALDAPAK
Mikel Arrizabalaga

16 LEA ETA ARTIBAI ARTEAN
Ali Barinaga eta June Pagaldai

22 PEÑA RUEDA
CAMINANDO POR LOS PUERTOS DE AGÜERIA
Paulo Etxeberria

24 TREKKING DE LUCHON
UN SANTUARIO DE NATURALEZA INTACTA
Albert Vila

32 ZERMATTEKO BOST LAKUAK
MENDITXIKI - SUITZA
Mikel Arrizabalaga

34 LA VÍA, NO TAN VERDE,
DEL DUERO PORTUGUÉS
Beatriz Jauregui

42 ELGON
LA MONTAÑA OLVIDADA DE UGANDA
Jose María Torres

48 FOTOGRAFÍA
Jose Antonio Ramos

50 EKAITZ MAIZ
SASOI BETEAN
Ioritz Gonzalez

54 AINHIZE BELAR^{EK}
MARKAK HAUSTEN DARRAI
Ioritz Gonzalez

56 MITOLOGÍA DEL SILO DE OKINA
CATÁBISIS EN KAPILDUI
Josu Granja

Beste diziplinak eta historia



Actualidad Berriak



64 ¿CÓMO SE MIDEN LAS MONTAÑAS?
Andreu Alvarruiz y David Segura

70 EL DESMÁN DE LOS PIRINEOS
MONTAÑERO POR OBLIGACIÓN
Jorge González Esteban

74 NUESTRA HISTORIA (VIII)
ANDES 67, TRES CUMBRES Y UNA IKURRIÑA
Antxon Iturriza

76 BBK MENDI FILM BILBAO BIZKAIA
78 MENDI LASTERKETAK
Alberto Mella Garate

82 NOTICIAS EMMOA ALBISTEAK
83 EMF BERRIAK · NOTICIAS FVM

88 MEKNF BERRIAK · NOTICIAS FNDME

89 PUBLICACIONES · ARGITALPENAK

90 AUDIOVISUALES · AUDIOBISUALAK

91 XAVIMOUNTAIN

PUBLICACIÓN TRIMESTRAL DE
EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA

Se publica desde 1926

ENERO-FEBRERO-MARZO
N.º **298** - 1ª de 2025

Edita: Euskal Mendizale Federazioa

Presidente: Zigor Egia

Director: Iván Ruiz

Depósito Legal: BI-858-1979
ISSN: 0212-5676

© PYRENAICA

Equipo de Redacción: Paulo Etxebarria, Begoña Fernández, Ioritz Gonzalez, Iñigo Jauregui, Xabi Mujika e Iñigo Santxo.

Administración: Gotzone Rodríguez
Redacción, Administración y Publicidad:
Julian Gayarre, 50 - 48004 Bilbao
Teléfono: 944 598 102

Horario: De lunes a miércoles
de 16:00 a 19:00 horas.

Diseño, maqueta y preimpresión: SUA EDIZIOAK

Imprime: Leitzaran Grafikak

Embolsado: Publimark



E-mail: contacto@pyrenaica.com

[@RevistaPyrenaica](https://www.facebook.com/RevistaPyrenaica)

[@revista.pyrenaica.aldizkaria](https://www.instagram.com/revista.pyrenaica.aldizkaria)

La propiedad intelectual y el copyright de los textos y fotografías pertenecen a sus autores/as por lo que, salvo acuerdo expreso con ellos/as o con Pyrenaica, queda prohibida toda reproducción total o parcial de los mismos.

Testu eta argazkien jabetza intelektuala eta copyright-a egiteenak dira, beraz egile edota

Pyrenaicaren baimenik gabe, debekatuta dago artikuluen zati baten edo erreproduzio osoa egitea.

CONCURSO DE RELATOS PYRENAICA KONTAKIZUN LEHIAKETA

Con motivo de su futuro centenario, la revista Pyrenaica convoca este concurso de relatos de ficción, que se rige por las siguientes bases:

Bere mendeurrena dela eta, Pyrenaica aldizkariak fikziozko kontakizun lehiaketa hau antolatzen du, honako oinarriek arautzen dutena:

1. Los textos podrán ser entregados tanto en euskera, como en castellano.

2. El tema del concurso será la montaña en general; pudiendo tratar su ámbito deportivo, etnográfico, histórico o cualquier otro que abarque nuestra disciplina, pero siempre partiendo de una trama de ficción.

3. Las obras presentadas deberán ser originales e inéditas. Solo se admitirá una obra en cada idioma por autor o autora.

4. Las obras tendrán una extensión de 12 000 caracteres aproximadamente (espacios incluidos) y deberán remitirse en un archivo WORD a la dirección de correo contacto@pyrenaica.com con el asunto "CONCURSO DE RELATOS PYRENAICA".

En el cuerpo del mensaje deberá figurar el TÍTULO DEL RELATO y los DATOS DE IDENTIFICACIÓN del autor o autora (nombre, apellidos, dirección postal, número de teléfono y dirección de correo electrónico).

5. Se admitirán trabajos durante todo el año 2025. Los relatos ganadores, seleccionados por el Jurado, serán publicados en el monográfico especial del centenario de Pyrenaica en 2026 y los trofeos serán entregados en la Gala del Montañismo Vasco del mismo año.

6. El hecho de participar en este Concurso implica la aceptación de sus bases. Todas las incidencias no previstas en estas bases serán resueltas por el Jurado.

1. Testuak euskaraz zein gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dira.

2. Mendia izango da, oro har, lehiaketaren gaia; bai bere kirol arloa jorratuz, etnografikoa, historikoa edo mendiaren barne dagoen beste edozein arlo; baina beti fikziozko argudio bat oinarri hartuta.

3. Aurkeztutako lanek originalak eta argitaragabeak izan beharko dute. Lan bakarra onartuko da hizkuntza bakoitzean egile bakoitzeko.

4. Lanek 12 000 karaktere izango dituzte gutxi gorabehera (tarreak barne) eta WORD artxibo batean bidali beharko dira contacto@pyrenaica.com helbide elektronikora, "PYRENAICA KONTAKIZUN LEHIAKETA" gaiarekin.

Mezuaren gorputzean KONTAKIZUNAREN IZENBURUA eta egilearen IDENTIFIKAZIO-DATUAK agertu beharko dira (izena, abizenak, posta-helbidea, telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa).

5. Lanen aurkezpena 2025. urte osoan zehar onartuko da. Epaimahaiak aukeratutako ipuin irabazleak 2026an Pyrenaicaren mendeurreneko monografiko berezian argitaratuko dira eta garaikurrak urte bereko Euskal Mendizaletasunaren Galan banatuko dira.

6. Lehiaketa honetan parte hartzeak bere oinarriak onartzea dakar. Oinarri hauetan aurreikusten ez diren gorabehera guztiak epaimahaiak ebaztiko ditu.



SEGUIR...

Se abre un cierto vacío tras los numerosos eventos sociales y reconocimientos del pasado año en el que conmemoramos el centenario de nuestra federación; ni más ni menos que 100 años de historia, paralelos a los múltiples aniversarios de nuestros clubes que están soplando 100, 75, 50... velas. Nuestro montañismo vive tiempos de celebración, y lo hace en un momento dulce: con récord de licencias -41.000- y un inmejorable ambiente.

Durante el reciente final de año terminaba un proceso electoral que se saldaba con la proclamación de nuestra candidatura, el núcleo de la anterior legislatura se reforzaba así con nuevas incorporaciones, de dilatada trayectoria en clubes. Una junta paritaria con vistas al obligado relevo en 2028, tras la culminación del proyecto con el que dimos un paso al frente:


En los nuevos tiempos que vivimos, etiquetados "de normalidad", recuperar el marco geográfico y cultural -agrieta en los 80- en el que a lo largo de los siglos nos hemos movido alaveses, vizcaínos, guipuzcoanos y navarros; afianzando la *Euskal Herriko Mendi Biltzarra* como marco de nuestras actividades de competición (carreras, marcha nórdica, skimo, escalada...) así como de promoción del montañismo (*Emmoa*, marchas, senderismo, centenarios, *udalekus*, *Besaide*, *Erdigune*...).

Seguir potenciando la formación, selección y acompañamiento de nuestro mejor talento de competición; obteniendo para ello los recursos económicos necesarios, lo cual redundará en la proyección de nuestro deporte y la atracción futura de personas al medio.

Seguir la dinámica del punto anterior, pero siempre con un necesario equilibrio de recursos y foco... ya que la inmensa mayoría de nuestra gente practica un montañismo no-competitivo, cultural, geográfico, sentimental... en su búsqueda de valores como la libertad, la comunión con la naturaleza, con sus orígenes o simplemente como una vía de escape de sus obligaciones.

Finalmente, seguir con la propia gestión de la federación, 180 personas involucradas, trabajadores, comités por disciplina, seguridad, *Pyrenaica*, redes, *newsletters*... así como encarar los retos cada vez mayores en el campo de los seguros de accidentes dada la escasa competencia en el mercado, el acusado envejecimiento de la sociedad o la siniestralidad (7 accidentes diarios).

Seguir... al fin y al cabo, ojalá otros 100 años. *Betidanik betiko!*

PRESIDENTE
EMF-FVMEMF-FVMKO
LEHENDAKARIA

Ricardo Hernani

JARRAITU...

Joan den urtean gure federazioaren mendeurrena ospatzeko egin genituen hainbat ekitaldi sozial eta aintzatespenen ondoren, hutsune txiki bat zabaldu da; 100 urteko historia ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Bien bitartean, gure klubetako askok 100, 75, 50 urte bete dituztenez, urteurrenak ospatzen ari dira. Gure mendizaletasunak festa eta ospakizun garaia bizi du, egungo une gozoa bizitzeaz batera: lizentzien errekorra gainditu berri du -41.000-, eta giroa ezin hobea da.

Joan den urtearen amaieran, hauteskunde-prozesu bat amaitu zen, gure hautagaitza berretsiz. Hala, aurreko legegintzaldiko lantaldearen muina sendotu egin da, klubetan ibilbide luzea duten kide berriak gehituz. Berdintasunean oinarrituriko batzordea, 2028ko nahitaezko erreleboa kontuan izango duena, eta batik bat, esku artean zuen proiektu nagusia burutu duena, honako aurrerapauso hauek lortuz:

Bizi ditugun garai berrietan, sarri "normaltzat" etiketatuak diren garaiotan, arabarrak, bizkaitarrak, gipuzkoarrak eta nafarrak mendeetan zehar izan dugun esparru geografiko eta kulturala berreskuratzea -80ko hamarkadan urratua-; *Euskal Herriko Mendi Biltzarra* gure eremu gisa sendotzea, bai lehiaketa-jardueretarako (lasterketak, martxa nordikoa, skimoa, eskalada...), zein mendizaletasuna sustatzeko ere (*Emmoa*, martxak, mendi-ibilaldiak, mendeurrenak, udalekuak, *Besaide*, *Erdigune*...).

Gure kirolari onenen prestakuntza, hautaketa eta laguntza sustatzen jarraitzea, horretarako behar diren baliabide ekonomikoak lortuz, bertako kirolaren proiektzioa indartuz eta etorkizuneko mendizaleak erakarriz.


Aurreko atalean aipaturiko dinamikarekin jarraitzea, betiere baliabideen eta helburuen arteko ezinbesteko oreka mantenduz, izan ere, bertako mendizale gehienak lehiaketetatik at aritzen baitira, mendizaletasunak duen kutsu kultural, geografiko, eta sentimenduzkoa lehenetsiz; askatasuna, naturarekiko edota sorterriarekiko harreman bila jardunez, edo besterik gabe, bere betebeharetatik ihes egiteko bide gisa ulertuz.

Azkenik, federazioa kudeatzen jarraitzea, beste batzuen artean 180 pertsona, langileak, hainbat diziplinetako batzordeak, segurtasuna, *Pyrenaica*, sareak, *newsletter*ak... edota gero eta buruhauste handiagoa dakarren istripu-aseguruen gaiari aurre egitea, merkatuko lehia eskasa, gizartearen zahartze nabarmena edo ezbehar-tasa (7 istripu egunero) direla medio.

Jarraitu... azken finean, ea beste 100 urte betetzen ditugun.

Betidanik betiko!

DEBOZIOZKO MENDIAK FEDEAREN ALDAPAK





Mikel Arrizabalaga Aizpurua
(Donostia-Eibar, 1957)

Egunkaria, Berria eta Gara egunkarietan, Pyrenaica, Euskal Herria eta Nora aldizkarietan eta Euskadi Irratian mendiarekin zerikusia duten makina bat artikulu eta kolaborazio egin ditu. Euskal Herriko mendietan ez ezik, Pirinioak, Alpeak, Atlas eta Himalaiako mendietan ibilia da.

Bilboko Club Deportivo elkarteko kideek, 1915. urtean, Anboto mendiaren gailurrean aurreneko postontzia jarri zutenetik mende bat baino gehiago igaro da, eta, ohikoa da Euskal Herriko mendietako gailurretan itxura eta tamaina desberdinetako postontziak ikustea: onddoak, etxeak, aizkorak, suziriak, animalia edota landare desberdinak... Mendi horietako gailur askotan badira ere postontziek duten helburuarekin zerikusirik ez duten beste zenbait elementu, erlijioarekin lotura zuzena duten gurutzeak eta ermitak (baseliza/kapera) esate baterako.

Fedeak mendiak mugitzen dituela esan ohi da, eta ziurrenik gure arbasoek mendira igotzean, Jainkoarengana hurbiltzen zirela uste zuten, eta horrela, beren fedeak bultzaturik, gure herriko zenbait gailurretan otoitz egiteko ermitak eraiki zituzten. Beraz, kasu honetan, mendez mende mendiak fededunak mugitu izan ditu gailurretan edo hauen magaletan eraikitako ermitetara. Batzuk otoitz egitera igotzen dira, beste batzuk eskaerak egitera, eta asko horien inguruko zelai eta larretan egin ohi ziren erromerietan parte hartzera, alderdi ludikoa eta erlijiosoa nahastuz.

Euskal Herriko zazpi lurraldeetan ohitura hori ez da modu berean eman. Ipar Euskal Herrian apenas dago kapera-rik tontorretan, Hego Euskal Herrian, aldiz, ugariagoak dira, Nafarroan eta Bizkaian batik bat, Araba izanik gutxien dituenak. Artikulu honetan, gailurretan kokatuta dauden zazpi ermitetara igotzeko ibilaldiak proposatzen dira, Euskal Herriko lurralde bakoitzeko bat, eta, bide batez, ermita bakoitzari buruz datu gutxi batzuk ematen dira.



ARRATOBE (ARABA)

Luzera: 5,6 km • Desnibela: 256 m • Denbora 1 ordu 45'

Letonako elizatik ipar-mendebalderantz igotzen den San Bitor kaletik joko dugu. Ibilbide osoan zehar aurkituko ditugun egurrezko zutoinek (Letona-Urisolo) erakutsiko digute bide zuzena. Asfaltoa bukatu eta lurrezko pista batetik igotzen jarraituko dugu. Kurtzeganen ondotik pasa eta gero, xenda erosotik erraz egingo dugu aurrera. San Bitor ermitaren irudia Arratobe mendiaren gainean aurrez aurre izango dugu.

40 zaldunen haitzuloa

Eskuinetik marrazten den xendatik tontorrera igoko gara. Buzoi txiki batek erakusten du Arratobeko tontorra eta bertan, San Bitor ermita kokatuta dagoen leku berean, Zaitegiko gazteluaren hondarrak ikusi ahal izango ditugu. Idatzizko lehen erreferentziak XII. mendeko bigarren erdialdekoak dira. Arabak Nafarroako Erresumari leial jarraitzen zion bitartean, Bizkaia Gaztelaren eskuetara pasa zen eta, horregatik, Antso Jakituna errege nafarrak, erresumaren mendebaldeko zatia babesteko, Gasteiz (1181) bezalako hiribilduak sortu eta Zaitegiko gaztelua bezalako gotorlekuak eraiki zituen.



SAN BITOR BASELIZA

XVII. mendearen hasieran, Letona eta Zaitegi herriek San Bitorren ohorez baseliza bat eraiki zuten. San Vitores, IV. mendeko martiria eta lur eta hazienden babesle izan zen. Horretarako Zaitegiko gazteluaren paretez baliatu ziren. XIX. mendean, karlistadetan suntsitua izan ondoren, bi herrietako bizilagunen laguntzarekin berreraiki egin zen. 1980ko sute batengatik gertatutako suntsipenaren ondoren, Abadelaueta Elkarte Etnografikoaren ekimenez eta Zigoitiko udala eta Arabako Foru Aldundiaren laguntzaz, Letona eta Zaitegiko Batzarrek San Bitor baselizaren azken birgaitze la-



San Bitor ermita eta Zaitegiko gaztelua

nak 2019ko azaroan burutzea erabaki zuten. Letonako herriak abuztuaren 26an ospatzen du santuaren ome-nezko jai eguna.

Mendi-lepora itzuli eta bertatik zabal-tzen den pista zabaletik Azkorrietako ton-torrerantz joko dugu. Pista zabala utzita, eskuinetik basoan marrazten den xenda-tik egurrezko seinale batek eta postontzi bitxiak tontorra erakutsiko digute. Eto-rritako bidetik atzera egin eta mendiaren ertzetik apenas ikusten den xendatik jais-ten hasiko gara. Urisoloko kastroa koka-tuta zegoen paraje hauetan dago izen bera duen haitzuloa, kastroa inguratzen duen harkaitzaren ertzean. Bidera itzuli eta ehunen bat metro beherago, Undako Goga edo 40 zaldunen haitzuloa ikuste-

ko parada izango dugu. 1200 urtearen inguruan, Arratoko guduan ganboatar baleztariak oinaztar zalditeria sarraskitu zuten eta, beren buruzagia hilik, ihesari eman zioten bere jarraitzaileek. Gudu-ze-laiaren inguruan zegoen haitzulo honetan babestu ziren zaldunak beren zaldiekin, eta hortik datorkio haitzuloari izena.

Pista zabalera itzuli eta maldan behera Letona aldera zuzenduko gara. Ataka bat pasa eta laster, ezkerretik zabaltzen den xendan barrena Letonako iturriak eta ikuz-tegiaren ondora iritsiko gara. Benetako ur-komplexu bat da, hainbat altueratako itu-rriz, 2005ean eta 2018an zaharberritutako garbitoki batek eta ura ibilguaren ondoko baratzeetaraino eramaten zuten hustubi-de batzuk osatua. Atzera egin eta azken aldapak abiapuntura eramango gaitu.

ATXARRE (BIZKAIA)

Luzera: 9,3 km • Desnibela: 393 m • Denbora 2 ordu 40'

Kanala auzotik abiatuko gara, eta bertatik San Martin basilizaren ondora. Basiliza xume hau, 315ean jaiotako erromatar ofi-zial baten semea izendatzeko eraiki zuten. Artadi kantauriar artean marrazten den bide zabaletik igotzen jarraituko dugu. Bideak, Dantzaleku izenez ezaguna den bidegurutzera eramango gaitu Atxarrera igotzeko bidearekin bat eginez.

Puntu honetan, bide baliztua utzi eta ezkerretik ateratzen den bide nabar-menetik egingo dugu aurrera. Hasieran aldapa txikia, baina azken metroetan bi-ziagoa den aldapatik ateratzean Atxarre-ko San Pedro ermita agertuko zaigu au-rrez aurre, eta honen aurrean, egoera

kaxkarrean dauden bi buzoi. Ermita dagoen plataforma nagusia petril batek babesten du bere inguru osoan.

SAN PEDRO BASELIZA

Tontorrean bertan dagoen baseliza XV. mendean eraiki zen. Eraikin txiki hau oinplano angeluzuzeneko nabe bakar batez osatuta dago eta hegal batean, bi leiho eta sarrerako atea kokatzen diren arkupe txiki bat dauzka. Iparraldeko horman bi gezi-leiho txiki ditu. Antzina, San Gregorio egunean, ibarrangelutarrak baselizara prozesioan igotzen ziren eta mezan bedeinkatzen zuten gatza, Urdaibaiko akelarre ospetsuak ospatzen ziren Dantzalekun zabaltzen zuten. Bestalde, sorginak uxatzeko erabiltzeaz gain, bedeinkatutako gatz hori uretan disolbatu ostean, baratzetan era sakabanatzen zuten uzta opa-roa eskatzeko.

Atxarre mendia, ez da Bizkaiko gailur enblematikoenetako bat, baina bai kontsideratu daiteke ikuspegi ederrenetakoak eskaintzen dituen mendietako bat dela. Behatoki edo talaia eder honetatik Urdaibai Biosfera Erreserbaren postalik bikainenetako bat ikusteko parada izango dugu.

Gure begiak ase ondoren, igotako bidetik maldan behera Dantzalekuko bidegurutzera itzuliko gara. Ibilbide balizatuak erakutsiko digu jarraitu beharreko bidea. Gaztainondo zahar batzuen ondotik igaro eta gero, altuera galtzen jarraitu eta basotik ateratzean gertu ikusiko dugu Akorda auzoa. Herria zeharkatu, hilerriaren ondotik igaro eta maldan behera asfaltozko bidetik Gametxo auzora jaitsiko gara. Auzoan dagoen begiratokitik Izaro uhartea, Mundaka herria eta Bizkaiko kostaren ikuspegi polita izango dugu.

Errepidean zehar eta seinale zuri eta horiek erakusten diguten bidean barna, Laidako hondartzaren ondora jaitsiko gara. Ibilbideak Arketako kanpinaren ondora eramango gaitu eta hura atzean utzi be-

zain laster, ezkerretik, basoan barneratzen den pista zabalean zehar Kanalara itzuliko gara, abiapuntura hain zuzen ere.

ATXORROTX (GIPUZKOA)

Luzera: 9,7 km • Desnibela: 369 m • Denbora 2 ordu 50'

PR-Gi 36ari dagozkion bide seinale zuri eta horiak jarraituz, lehen metroak aldapan behera beteko ditugu eta eskailera batzuk jaitsi ondoren, puntu erdiko zubia-
ren gainera Deba ibaia gaintu eta Santa Kolunba ermitaren ondora iritsiko gara Gatz museotik gertu.

Mende askotan zehar gatza izan da Leintz-Gatzagako bizigarria. "Urre zuria" deitua izan den honek herria sortzeaz gain izena ere eman baitzion. Gatz-iturria herri-
tik 250 metrora dago, garai batean herria eta gatz-produkzioa zaintzeko erromatarrek eraiki zuten Dorletaren ondoan (egun santutegia da). Leintz-Gatzagak duen klima hotz

Atxarreko San Pedro baseliza





Leintz bailara Atxorrotzeko tontorretik

eta hezeagatik ezinezkoa egiten zitzaion gatza lortzeko beste zenbat lekutan erabiltzen zuten lurrinketa-sistema erabiltzea, beraz, suaren bidez ur gazia berotu, likidoa lurrindu eta gatza lortzen zuten. Gaur egun, herriak bere iragana berreskuratu eta museo monografiko bat zabalik du. Puntu honetan ibilbidea PR-Gi 37arekin bat egiten du Dorletaraino. Aldapa labur eta pikoak berehala utziko gaitu santutegiaren ondoan. Bertako Ama Birjina txirrindularien zaindaria da.

Santutegia atzean utzi bezain pronto, ibilbidea bitan banatzen da, eskuin aldetik Deba ibaiaren sorburura joango ginateke (PR-Gi 37) eta ezker aldetik, aldiz, Atxorrotxera. Azken honi heldu eta lehen maldak gainditu ostean, Olaun auzora helduko gara. Gaztainondo eta haritzen artean beteko ditugu hurrengo metroak. Artabila baserria ezker aldera utzita, bide seinaleek erakusten diguten norabidean aurrera joko dugu. Bide zabal eta erosoak bidegurutze baten aurrean utziko gaitu, bertan norabide desberdinak erakusten dituzten metalezko seinaleak ikusi ahal izango ditugu. Gertu izango dugu helmu-

ga eta lurrezko pistan barrena berehala iritsiko gara Leintz bailara osoa menderatzen duen tontorren oinera.

Ondo zaindutako bidetik XVI. mendekoa den Santi Kurutz (Santa Kurtz) ermitara igoko gara eta goian aztarnategi baten arrastoak ikusiko ditugu. Bertan Erdi Aroko materiala aurkitu dute eta Nafarroako Erre-

sumaren gaztelua izan zenaren lekuan ermita dago orain, bertatik igarotzen baitzen defentsa lerroetako bat. Ermitaren inguruan, zenbait indusketa arkeologiko egin dira, eta hondakinei erreparatu gero, gaztelua izan zenaren gotortze-egiturak antzean daitezke, harresia eta uraska besteak beste. Itzulera igotako bidetik beteko dugu.

SANTI KURUTZ ERMITA

Ermitaren erreferentzia zaharrena 1594koa da. Eraikin simplea da, apaingarririk gabea. Denboran zehar hainbat zaharberritze izan ditu eta hasieran zuen itxura aldatzen joan da. 1952an zaharberritu zuten, gerra karlistek eta gerra zibilak eragindako kalteen ondorioz. Geroago, 1963an ekaitz bortitz batek kalte handiak eragin zituen. Ermitak gurutze santuaren benetako erlikia du, Leintz bailara osoa gailurretik bedeinkatzeko erabili ohi dena. Elezahar baten arabera, Atxorrotxen bertan, Noeren ontzi bat lurreratu omen zen eta horregatik, ermitaren sabaitik zintzilik dago itsasontzi baten maketa. Maiatzeko lehen igandean ospatzen diren meza eta erromerian mendizale eta bertako bizilagun askok egiten dute topo.





Kalbarioko gaina eta kapera

KALBARIO (LAPURDI)

Luzera: 7,8 km • Desnibela: 471 m • Denbora: 2 ordu 25'

Biriatu herrian dagoen aparkalekutik abiatuko gara. Udaletxea eta San Martin elizaren (1305 urtea) ondora igo, bere ondoan dagoen hilerriaren hormen ondotik segi eta berehala, "Kukutxoa" etxearen aurretik pasako gara. Aurrerago, GR-10ari dagozkion bide-seinaleek erakusten diguten norabidean igotzen hasiko gara. Laster, bide baliztua utzi eta aurrez aurre ditugun Perdrixko haitzen aldera joko

dugu malda pikoari aurre eginez. Argindar poste erraldioen azpitik igaro eta gero, xenda nabarmenetik egingo dugu aurrera. Lehen bidegurutzean, eskuinetik ateratzen den xendak bide nagusiarekin bat egin eta gandor biribilduan zehar ibiliz erraz helduko gara Xoldoko gainako tontorrera. Ikuspegi zabalaz gozatzeko tartea hartuko dugu. Euskal kostaldeko herriak ez ezik gertuko mendien ikuspegi bikaina izango dugu.

Etorritako bidetik atzera egin, Pirinioetako zeharkaldia egiteko lehen oztopoa

den mendi honen tontorrari bizkarra eman eta, behean ikusiko dugun Kalbarioko muinoan dagoen ermita aldera jaisten hasiko gara. Lepora iristean, bide nagusia utzi eta eskuinetik hedatzen den bide zabaletik aldapa motz eta pikoari aurre egingo dugu. Muinoaren gain aldera iristean, aurrez aurre izango ditugu Kalbarioko tontorrean altxatzen diren kapera edo otoizlekua eta gurutze handia. Leku ederra kaperaren ondoan dagoen harlauzan eseri eta in-guruaz gozatzeko.

Toki berezi eta paregabe hau atzean utzi eta Larretxeko Borda etxe-multzoa dagoen aldera jaisten hasiko gara. Bide zabalak auzoraino bertaraino eramango gaitu, baina bertan murgildu aurretik, kotxeak aparkatzen diren lekuaren ondotik ekialderantz hedatzen den lurrezko pista zabala hartuko dugu. Hemendik Biriatura Perdrixko gandor baxuenaren azpitik pasatzen den bidetik beteko dugu eta bertatik erraz egingo dugu aurrera ibilaldiaren hasieran hartu dugun bidearekin bat egin arte. Aldapan behera, Biriatura herrira itzuliko gara.

KALBARIOKO KAPERA

XVII. mendeko kapera edo otoizlekua da. Bertako sinesmen baten arabera, Aprendistéguyko abadea izan zen bere ondarea baseliza hori eraikitzeke erabili zuena. Ermita dagoen muinoak XVIII. mendetik ziurtatuta dagoen kalbario bati zor dio izena. Badakigu Frantziako Iraultzaren aurretik Kalbarioaz gain kapera batek eta ermitau baten etxebizitzak osatzen zutela Kalbario mendian zegoen multzo erlijiosoa. 1793 eta 1794 urteetan, errepublikarrek erlijio katolikoa zalan-tzan jartzeak ondare guztia suntsitzea eragin zuen. Iraultzaren osteko artxiboek kaperaren, ermitaren eta Kalbarioaren hondakinak aipatzen dituzte lur-muino baten azpian. Jean Fourcaderen ekimenez, 1967an kapera elkarlanean berreraikitzea erabaki zuten eta 1969ko ekainaren 8an inauguratu zuten.



OILARANDOI (NAFARROA BEHEREA)

Luzera: 13 km Desnibela: 777 m Denbora 3 ordu 50'

Baigorriko udaletxearen aurrean ibilgailua utzi eta GR-10aren bide-seinaleek erakutsiko digute jarraitu beharreko bidea. Eskuinean Iparlako harresia goititzen delarik berehala helduko gara Aldudetik datorren Errobi ibaiaren adarra gainditzeko zubira. Gure eskuinean zubi "erromatarra" ikusiko dugu. Metro gutxi batzuk bete eta ezkerretik jarraitu, errepidea azpitik pasa eta maldan gora jarriko gara. Bidegurutzetan seinale zurigorriek lagunduko digute bide zuzena aukeratzeko.

Asfaltatutako bidea amaitu eta lurrezko pista batetik igotzen jarraituko dugu basoan zehar. Balizatutako bidearen malda gogorrenak gainditu eta gero, Ahartza leporaino igotzen den errepide txikira iritsiko gara. Puntu honetan, GR-10ak norabide berria hartzen du, ezkerretik igotzen da Oilarandoiko magalean zehar, baina guk hau itzulerarako utzi eta GR-10aren bide zaharretik egingo dugu aurrera. Errepidearen eskuinetik eta honen azpitik hedatzen den

pista zabaletik egingo dugu aurrera, hasieran aldaparik gabe, baina gero malda gogortu egingo da errepidera atera aurretik.

Errepide hestutik beteko dugu hurrengo tartea eta lehen bihurgunera iristean, hau utzi eta ezkerretik gorantz joko dugu, mendiaren gain aldean ikusiko dugun kaperarantz. Malda pikoa gainditu eta haitzez inguraturik dagoen Oilarandoi kaperara helduko gara.

OILARANDOIKO KAPERA

1706an, haraneko 11 herrietako etxe-ko jaunak biltzen zituen Baigorriko Gorte Nagusiak Oilarandoi mendia-
ren tontorrean ermita bat ezartzea erabaki zuten. Bertan egoten ziren ermitauei otoitz egitea eskatzen omen zitzaaien zerutik etor zitezkeen txingor eta ekaitzetatik babesteko, 1740 eta 1792 urteen artean ermita hau okupaturik egon baitzen eta 1789 iraultza eta gero, suntsitua izan zen. 1941ean, J. Olhagaray apaizak kapera berri bat eraikitzea erabaki eta urtebete beranduago, 1942an inauguratu zuten. 1985ean, berriz, eguraldi txarraren eta gizakiak sortutako kalteen ondorioz, ermita goitik behera berritu egin zen. Baigorriko jendea eta inguruko herritarrak urtean bitan (ekainean eta abuztuan) igotzen dira.

Adartza, Iparlako harresia, Auza, Iratiko mendiak, Pirinioetako mendi garaiek eta Donibane Garaziko haranak eskaintzen duten ikuspegi paregabeaz gozatu ostean, maldan behera Ahartza leporaino jaitsiko gara. Puntu honetan, ezkerretik datorren xenda balizatua (GR-10 berria) bilatuko dugu eta Oilarandoiren magala puntatik puntara zeharkatuz errepidera itzuliko gara, igoerarako erabili dugun bidearekin bat eginez. Puntu honetatik herriraino igotzeko erabili dugun bide berbera erabiliko dugu.

Oilarandoiko kapera eta tontorra



BERIAIN (NAFARROA GARAIA)

Luzera: 19,5 km • Desnibela: 905 m • Denbora 5 ordu 30'

Unanu herriko goialdean zabaltzen den ibilgailuentzako pista zehar abiatu eta berehala, eskuinera ateratzen den lasterbi-de bat hartuko dugu metalezko ataka handi baten ondora ailegatzeko. Pista zabaletik aurrera egin eta ezkerretik marrazten den Iturtzikiko xendan barrena izen bera duen iturriaren ondora helduko gara. Metro gutxi batzuk gorago, itzulerarako erabiliko dugun bide zabala eskuinean utzi eta pagadi aldera zuzentzen den bidetik igotzen hasiko gara. Tarte honetan malda gogortu egiten da eta emeki emeki, pagadian murgildu eta aurrera egingo dugu.

Azken pagoak atzean utzita, Elorriagoako lepora aterako gara, atsedean txiki bat egiteko leku aproposa, batik bat aurrez aurre ikusiko dugun malda piko eta bortizari aurre egiteko. Aldapa honetan harri soltea izango dugu eta tarteka gogaikarria egingo zaigu. Desnibel handiena gainditu eta gero, Unanuko atakara eramango gaituen bidea zertxobait leundu egiten da. San Donato baselizaren irudia lehen aldiz ikusiko dugu eta belarretan ikusiko ditugun harri-pilo handiek lagunduko digute bertara iristen.

Mendilerroa jarraituz, erraz iritsiko gara baseliza eta haren ondoan dagoen Beriaingo tontorrera. San Donato Nafarroako Sakana eskualdean dagoen Uharte Arakil udalerriko lur-sailetan dagoen baseliza da. Zehazki, Beriain mendiaren gailurrean dago, 1.493 metroko garaieran.

SAN DONATO BASELIZA

Eraikina bi zatitan banatuta dago: bata, baseliza bera, eta bestea mendizale eta ibiltarientzako aterpea dena. Antzinako baselizaren eraikitze data zehatza ezezaguna da; dena dela, 1642 urteko aipamena dago. Egungo garaietan, berriz, eraberritua izan zen 1906an. Geroago hondatuz joan zen, harik eta 1958an berreraiki zuten arte. 2005. urtean eraikinaren barnealdeko egoera tamalgarria zela eta (zi-

kinkeria, idazki eta margo politikoak, zaborrak, bertaratutako batzuen utzikeria...) zaharberritu egin zen. Baselizaren barrenean, aldarearen harriak San Donato eta San Kaieten irudiak eusten ditu, bi hauek izatez igeltsuzko erreplikak direlarik.

Tontorretik dagoen ikuspegi zabal eta paregabeaz gozatu ostean, eta, abiapuntura itzuli aurretik, Euskal Herriko erdigune geografikoari bisita egingo diogu. Ez da batere erraza kokalekua aurkitzea bide nagusitik ez baita ikusten eta erne ibili behar da Olibesariko saroiria iristean zutarrin baten inguruan jarrita dauden hiruzpalau zirkulu zentrokidez osaturik dagoen erdigunea topatzeko. Paisaia aldagaitza da, harriz eta belarrez osatutako izaera soila erakusten du.


Toki esanguratsu hau atzean utzi eta Lizarragako tunelera zuzentzen den pista zabaletik aurrera egingo dugu. Bideak 180°ko bira egiten duen lekuan, pista utzi eta beheko zelaigunera jaitsiko gara. Lezizagoako bidetik itzuliko gara herrira, Beriaingo harresi bikainaren ikuspegi ederrez gozatuz.

SAN ANTONI (ZUBEROA)

Luzera: 12,5 km • Desnibela: 658 m • Denbora 3 ordu 30'

San Ziprian elizaren ondoan dagoen pilotalekutik abiatuko gara. D-918 errepidea zeharkatu eta, aurreko kaletik aurrera egingo dugu aparkaleku bateraino. Lehen bidegurutzetara honetan, ezkerreko bidea aukeratuko dugu, eskuinekoa itzultze-

Beriaingo San Donato ermita





San Antoni kapera

ko utziko dugu. Marra horiz balizatutako ibilbideak norabide zuzena aukeratzen lagunduko digu. Asfaltoan zehar ibiliko gara zelai zabal eta berdeen artean. Ehüsako lephoak bereizten dituen Elhaudi eta San Antoni mendien silueta ederki ikusiko dugu bertatik. Arrokain etxaldea atzean utzita, margo horiek erakusten diguten bidea eskuinera utzi eta, ezkerretik, Elhaudi mendiaren magal aldera doan bidea bilatuko dugu.

Elhaudiren iparraldeko hegaletik gora egiten duen bide nabarmena jarraituko dugu. Asfaltozko bidea utzi eta, ezkerretik igotzen den lurrezko bide zabala hartuko dugu. Borda erori baten ondok pasata berehala, basotik atera eta Elhaudi mendiaren iparraldeko hegal zabal eta belartsuan gora egingo dugu. Haranaren panoramika zabaldu egingo da. Ehüsako lephora doan bidea utzi eta, ezkerretik ateratzen dena aukeratuko dugu tontorreraino iristeko eta, bertan, harrizko gurutzeara ikusiko dugu.

SAN ANTONI KAPEREA

Karlos II.a (Gaiztoa ezizenez ezaguna) errege nafarraren aginduz eraiki zuten kapera kokaleku honetan, 1835. urtean, Lüküztarren eta Agramondarren leinuen arteko bakearen sinadura ospatzeko. Bere kanpandorre hirukoiztarra, Zuberoako eliza eta kaperetan ohikoa da. Ermitaren azpian kripta ikusiko dugu. Kapera honek, eraikitzea agindu zuen erregea eta bere aurrekoak gogora ekartzeari gain, borrokan hil ziren guztien arimengatik otoitz egiteko altxatu izan zuten. "*1385 lan Hasirik Heben Othoitz Egiten da Bakiarentako*". Santutegia, beraz, bakearen aldeko otoitzak egiten dituen santutegia da eta izango da.

Jaitsiera azkar batek, Ehüsako lephora eramango gaitu, Muskilditik datorren bide balizatuarekin berriro bat egiteko. Hemen ere, Done Jakueren Piamonte Bidearen (GR-78) marra zurigorriak izango ditugu lagun tarte batez. Pistak, San Antoni kaperraino eramango gaitu, izen bera duen tontorrera.

Abiapuntura itzultzeko, marra horiz balizatutako bidean barna jaitsiko gara. Hasieran, iparraldeko isurialde belartsuan zehar egingo dugu behera,

Oxkaxeko mendatetik datorren pistaren paraleloan eta marra horiek erakutsiko diguten norabidea segituz. Erraz galduko dugu altuera Eiheregi baserri ederrera iristeko. Lurrezko pista, asfaltozko errepidea bihurtzearekin batera, leundu egiten da. Zelai berdeen artean marrazten den asfaltozko bidearen alboetan, ohikoa da artalde ugari bazkatzen ikustea. Herriera sartu aurretik, harrizko gurutzadura ikusiko dugu, hasieran igaro dugun apartekalekutik gertu.



TESTUA ETA ARGAZKIAK



Ali Barinaga
eta June Pagaldai

Markina-Xemeindar mendizale amorratuak, Artibai Mendigoizale Taldeko bazkideak dira. Ama, hizkuntzen irakaslea eta alaba Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan graduatua. Ikasketak, lana eta mendia uztartzen saiatzen dira.

Urregarai eta Bedartzandi

LEA ETA ARTIBAI ARTEAN

Oraingo honetan "etxean" geratuko gara, umeak ginenetik hainbeste arakatutako eta maitatutako bazter menditsuetan; hau da, gure ingurua hartuko dugu ardatz. Lea eta Artibai ibaien artean aurkitzen ditugun Markina-Xemeingo, Aulestiko nahiz inguruko biztanleentzat oso ezagunak diren lau tontorrak bereganatzen dituen ibilbide zirkular bati buruz ari naiz. Xarma berezia duen gailur hauetako bakoitzak istorio propio bat gordetzen du. Hauetako batzuk, kobazulo, leize eta pertsonaia mitologikoz betetako basoak ezkututzen dituzten "sekreto-lekuez" hitz egiten dute; beste batek aspaldiko tradizio erlijiosoaren inguruko kondaira kontatzen digu, eta hauetako besteren batek gerra-garai iluna ere gogorarazten digu. Ibilbidean zehar urtarorearen arabera desberdinak diren paisaia, kolore eta usainek txundituraz beteko gaituzte, zalantzarik gabe. Gainera, eguraldiak lagunduz gero, kareharri zurien artean belarretan etzanda egingo ditugun atsedenez gozatzeko aukera ere izango dugu.

Lehen tontorra den Ariztieder, eta azkena den Zapola, Kantauriko arteek osatzen dituzten altuera baxuko basoz estalita daude. Beste biek, ordea, Bedartzandi/Urregarai mendigunea osatzen dute. Gailurrak, horrela deitzen diren arren, haitz zuri grisaxkaz, hau da, kareharriz daude osatuta. Ibilbidean zehar bi hauek paisaia karstikoena es-

kaintzen dute, baina behealdean ardi eta zaldientzako larre berdeak aurkituko ditugu. Motxila bizkarrean eta makilak eskuan hartuta, erlojua alde batera utzi eta egun osoan zehar mendi hauek eskaintzen diguten naturaz gozatzea proposatzen dut.

Abiapuntua Markina-Xemeingo Boluko zubia da. Bertan informazio-taula batek

inguruneaz eta beste ibilbide batzuek hitz egiten digu. Saihesbidearen azpitik San Jazinto ermitaraino doan errepidean gora egingo dugu. Malda igo ostean eta base-ri batzuk zeharkatuz, Axpe Sagardotegi-
ra eta gero Lezanera eramango gaituen bidea hartuko dugu ezkerarantz. Azken hau, atzealdea iparraldetik babestuta duen beste baserri berezi bat da.

ARIZTIEDER (432 m)

Aldapa buztinezko lur gorrixkako sigi-saiga batean hasten da eta Gabaro base-riaren hondarretaraino eramaten gaitu. Inork gutxi ezagutzen du hemendik metro gutxira dagoen kobazuloa, landaretzak bidexka ezkututzen duelako. Kobazuloa haitzean dagoen irekidura estu bat da, sarbide zaila duen zulo baten ondoan. Gaztetan, bota zahar eta linternekin nekez jaisten ginen abentura bila emozioz beterik. Espediziokide izatera jolasten genuen, zerbait berria deskubritzeko nahiarekin. Oroitzapen mamitsuak.

Interes militarreko mineralen bila ibili omen ziren haitzulo hauetan. Ez da komeni hesia pasatzea eta ikustera hurbiltzea, arriskutsua da eta

Pixka bat gorago, merenderoa kokatzen da (lehen ez zegoen halakorik, eta piknik-eguna hango belar harrotuan etzanda igarotzen genuen), baita inguruko leizerik sakonena ere. Interes militarreko mineralen bila ibili omen ziren haitzulo hauetan. Ez da komeni hesia pasatzea eta ikustera hurbiltzea, arriskutsua da eta. Hemendik, lehenengo, eskuineko aldetik igoko gara gailurrera, kartelak adierazten duen norabidea jarraituz. Lurrean dauden zulo bitxiak eta gorago bihurritutako arte zaharren arteko bidezidorra da. Minutu gutxi barru, inguruko haitz zorrotzen gainean dagoen postontzian aurkituko gara. Ia ez dugu ikuspegi panoramikorik arte eta zuhaixken altueragatik. Baina inguruneak merezi du, batez ere egurrezko seinalera itzultzen bagara eta Kobariara garamatzan bidezidor aldapatsuan behera metro batzuk jaitea erabakitzen badugu.

Fatxadatzat hartzen den horma bertikal handi batekin topo egingo dugu. Honek gure jainkosa mitologikoa den Mariren egoitzara heldu garela adierazten digu; gaur egun zuhaitz altuek estaltzen duten barrunbe batera, hain zuzen. Kobazuloak ez du sakonera handirik barnealdean, baina atari ikaragarriaren azpiko gelara jais-

ten garenean, bere solemnitatea sentiarazten digu. Gure urratsetara itzuliko gara harrizko hainbat egitura naturalei erreparatuz. Izan ere, espeleologo eta zaleek horrelako inguruetan ahaztutako leizeak bilatzen dituzte.

Bide zabalagorantz joko dugu Herribasoko bidegurutzeraino, eta hemendik aurrera pasealdi lau eta lasaiaz gozatzeko prest gaude, baso honen pago dotoreen azpian. Isiltasun itzela. Bakarrik txorien txorrotxioa entzuten da. Txepetxabixeko antzinako harrobira doan tarte oso atsegina egingo zaigu.

BEDARTZANDI (701 m)

Apurka apurka gorantz doan bidexka honetan pago eder bat azalduko zaigu eskuinaldean. Bere xarma duen baso batera



eramaten gaitu parean irteten den bidezidor honek, non goroldioz estalitako arte okerrek lubaki naturalak ezkututzen dituzten. Bidean aurrera eginda, gaur egun behatoki bezala berreskuraturiko harrobia bisitatuko dugu eta enbor zahar batzuen

Bedartzandiko lepoko basoa





Aterpetxea Santa Eufemiko zelaian

gainean jarrita gaudela, hamaiketakoa ateratzeko ordua iritsi da.

Horrela, behin sabela beteta, Bedartzan-diko gailurrera ipar lepotik gorantz abiatuko gara, labirinto itxurako magal honetan. Bidezidor desberdinak daude, beraz gehien gustatzen zaidana aukeratuko dut metro batzuk atzera eginda. Bat-batean, akelarreak ospatzeko eszenatokiak aurkituko ditugu, ehunka urteko pagoek zirkuluak eratzen dituztelarik. Zeinen ederrak diren.

Bidegurutzera heldu eta GR 38.1ko markak ikusten hasiko gara. Hauek, Ardoa eta Arrainaren Ibilbidearen adar batekin batu garela jakinaraziko digute, Oioneko mahastietatik kostako Bermeo herriraino doana. Santutxuko ermitan, hemen-dik iparralderantz kilometro gutxira, hain zuzen, ibilbide honen adarkatzea kokatzen da; Ondarru edo Lekeitiora doana. Gure txangoa basoan zehar jarraituz, ezkerre-ra biratu eta higadurak zigortutako xen-

